

ESKORIATZAKO UDALAREN ETA ARIZMENDI IKASTOLAREN ARTEKO HITZARMENA

BILDURIK

ALDE BATETIK, Edorta Zubizarreta Alegria, Eskoriatzako alkatea, Eskoriatzako Udalaren izenean, haren ordezkari legeztatu eta horretarako ahalmena duena.

ETA BESTETIK Laurane Zubia Balanzategui Arizmendi ikastolaren izenean eta haren ordezkari legeztatu.

Bi aldeek hitzarmen hau egiteko eskumena eta gaitasuna onartzen diote elkarri eta, beraz

ADIERAZTEN DUTE

Azaroaren 17ko 38/2003 Diru-laguntzen Lege Orokorreko 22.artikuluaren, besteak beste, jasotzen da dirulaguntza zuzentzat joko direla toki erakundearen aurrekontuetan nominatiboki aurreikusita daudenak eta laguntzak ematerakoan horiek arautzen dituzten arauetan eta hitzarmenetan jasotakoaren arabera eman beharko direla.

Eskoriatzako Udalak, 2023ko aurrekontuetan Arizmendi Ikastola Kooperatibarentzat 2.190 euroko dirulaguntza nominatiboa aurreikusten da.

Era berean, Eskoriatzako Udalaren 2020-2023 Dirulaguntzen Plan Estrategikoan, zeina Udalbatzarraren erabakiz 2022ko abenduaren 20an eguneratu baitzen, ildo estrategikoak jasotzen dira, 6. lerro estrategikoa izanik "hezkuntza sustatzea" izeneko.

Lerro horren B) programaren deskribapenean Arizmendi Ikastolak antolatutako jarduerak deritzon atalean dirulaguntza izendun bezala jasotzen da, eta bere helburua erakunde horri urteko jarduerak bereziak antolatzeko diruz laguntzea da.

Diru laguntzei buruzko azaroaren 17ko 38/2003 Lege orokorreko 22. Artikuluaren eta horrekin bat datozen arauetan ezarritakoaren arabera, alde bietan ondorengo baldintzek arautuko duten hitzarmena sinatzen dutela:

KLAUSULAK

LEHENENGOA.- HITZARMENAREN XEDEA.

Hitzarmen honen helburua da 2023ko ekitaldirako udal aurrekontuan Arizmendi ikastolaren alde dagoen diru laguntza izenduna antolatzea ez ohiko ondorengo jarduerak sortutako gastuak finantzatzen laguntzeko:

- Pantailen erabileraren kudeaketarako formazioa. 580€
- Sexologia tailerra. 1.200€
- Euslitteraturak. 700€



BIGARRENA.- ESKORIATZAKO UDALAK EGIN BEHARREKO JARDUERAK.

Eskoriatzako Udalak konpromisoa hartzen du gehienez ere 2.190€ko diru laguntza emateko 0600.471.324.00.01 aurrekontu aplikazioaren kargura lehenengo klausulan zerrendatutako jarduerak sortutako gastuak finantzatzen laguntzeko.

Arizmendi ikastolak jasoko duen dirua diru laguntza honen helbururako gastuak ordaintzeko erabili ahal izango da bakarrik, hau da, ezingo da beste helburu batzuetarako erabili.

Udalari aldeztu aurretik jakinarazita, ekintzaren bat egin gabe utzi eta horren ordez beste bat jarri ahalko du. Horretarako, Udalaren oniritzia izan behar du eta proposamena eta aurrekontua batera aurkeztu beharko dira. Ekintza berriak aurrekontu handiagoa eskatzen badu, ezin izango du diru kopuru handiagoa eskatu. Aurrekontua txikiagoa bada, berriz, diru laguntza berrikusi ahal izango da.

Ekintza edo jarduera hauetako bat bertan behera geratuz gero, ez da diru laguntza kopurua gutxituko baldin eta diru laguntzaren %100a zuritzen bada.

HIRUGARRENA.- DIRUZ LAGUNDU DAITEZKEEN GASTUAK.

Diruz lagundu daitezkeen gastutzat joko dira diruz lagundutako jardueraren izaerarekin bat etorri eta zazpigarren baldintzan zehaztutako justifikazio epea amaitu baino lehen egiten direnak.

Diruz lagungarri izan daitezkeen gastu kontzeptuei dagokienez, gastu tipologia zehazteko ondorengo mugak ezartzen dira:

-Langileen (finko zein aldi baterakoenen) zuzeneko kostuak diruz lagungarriak izango dira bakarrik langile horiek diruz lagundutako jardueran eginkizun zuzen eta giltzarria badute, eta betiere, kobratutako kopuru osoa ez bada 150 euro baino handiagoa eta kopuru hori ez bada jardueraren gastu osoaren % 10 baino handiagoa. Ez dira zuzeneko kostu diruz lagungarriak, eta zeharkako kostutzat joko dira, laguntza emateko soilik diren erakundeko langileak (adibidez, zuzendari nagusia, kontularia, kontratazio arloan laguntza ematen duena, giza baliabideetakoak, informazio teknologietakoak, administrari laguntzailea eta abar).

-Administrazio eta antolaketa barne kostuek ez dute laguntzarik edo diru laguntzarik izango.

-Ez dira onartuko bazkari, afari edo ostalaritza zerbitzuko gastuak, diruz lagundutako ekintzan parte hartzen dituztenekin sortutakoak izan ezik, eta hala denean, egindako gastuaren eta lortu nahi den helburuaren arteko proportzionaltasuna gorde beharra dago.

-Ez dira onartuko kilometraje, ibilgailuentzako erregai, telefono zerbitzu partikular edo antzeko gasturik.

-Ez dira onartuko gastu oharrak eta beste dokumentu batzuk, legeko baliodun faktura edo egiaztagiritzat jotzeko eskatzen diren arauko baldintzak betetzen ez badituzte



LAUGARRENA.- HEZKUNTZA JARDUERETARAKO BESTE LAGUNTZA BATZUEKIN PILATZEKO AUKERA ETA FINANTZAZIO MUGAK.

Emandako diru laguntza bateragarria izango da helburu bererako Udalak edota beste erakunde publiko edo pribatuek emandako diru laguntzarekin. Hala ere, inolaz ezin izango da onartu gain-finantziatorik. Horrelakorik gertatuz gero, emandako diru laguntza murriztu egingo da diruz lagundutako ekintzaren kostu totalaren mugara.

BOSGARRENA.- ARIZMENDI IKASTOLAREN BETEBEHARRAK.

-Diru laguntza emateko arrazoia den jarduera egitea.

-Baldintzak bete direla eta jarduera egin dela justifikatzea.

-Jardueraren garapenari buruzko informazioa ematea jarraipena egin ahal izateko eta Udalak eman dezakeen laguntzarako.

-Diru laguntza emateko kontuan hartu den edozein gorabehera aldatuz gero, horren berri ematea Udalari.

-Udalak egin beharreko egiaztatze jardunak onartzea, bai eta eskuduntza izendaturik duten kontrol organoek -estatukoak nahiz erkidegokoek- egin ditzaketen egiaztatze eta finantza kontrolerako beste edozein ere, eta jardun horiek egiterakoan errekeritzen zaien informazio guztia ematea.

-Diruz lagundutako jarduera finantzatzeko beste diru laguntza, laguntza, diru sarrera edo bitarteko batzuk lortu baditu, Udalari jakinaraztea. Laguntza horien berri izan eta berehala egin beharko da jakinarazpena, eta edozelan ere, funtsei emandako aplikazioa justifikatu baino lehen.

-Zerga betebeharrak eta gizarte segurantzarekikoak egunean izatea hitzarmena sinatu baino lehen eta hitzarmenaren indarraldiak dirauen bitartean. Horretarako, hitzarmen hau sinatzearekin, Gipuzkoako Foru Aldundian, Gizarte Segurantzaren edo eskuduntzak dituen beste erakunde edo administrazio publikoren batean dagozkion ziurtagiriak telematikoki lortzeko baimena ematen zaio, berariaz, Eskoriatzako Udalari.

SEIGARRENA.- DIRU LAGUNTZA ORDAINTZEKO EPEAK.

Diru laguntza modu honetara ordainduko da:

% 60a ondorengo dokumentazioa elektronikoki aurkeztutakoan eta hitzarmen hau sinatu ondoren:

- Diruz laguntzen diren jarduera bakoitzaren programa-memoria.
- Jarduera bakoitzaren diru sarreren eta gastuen aurrekontu xehatua.
- Helburu bererako eskatutako edota jasotako beste laguntzei buruzko zinpeko aitortpena.
- Diru laguntza ordaindu beharreko banku-kontua.
- Gizarte Segurantzarekiko, Eskoriatzako Udalarekiko eta Foru Ogasunarekiko zerga betebeharrak egunean dituela egiaztatzea.



Gainerako % 40a, organo eskudunak diru laguntzaren kitapena onartutakoan ordainduko da, hau da, diruz lagundutako jarduerak erabat eta zuzen justifikatutakoan 7.baldintzan eskatutako dokumentazioa aurkeztuta.

ZAZIPGARRENA.- DIRULAGUNTZEN JUSTIFIKAZIOA

Justifikatzeko modua KONTU SINPLE JUSTIFIKATU bidez izango da.

Hitzarmenaren helburu diren jarduerak amaitu eta HILABETERA, eta edozein modutan ere, urte honen azaroaren 17a baino lehen, Arizmendi ikastolak ondorengo dokumentuak aurkeztu beharko ditu elektronikoki Udal Erregistro Orokorrean diru laguntza justifikatzeko:

- Eskaera orria.
- Jarduerak egin zirela eta helburuen betetze maila egiaztatze txostena.
- Dokumentazio grafikoa (kartelak, liburuxkak, libretoak, banatutako idatzizko materiala, prentsa oharrak eta abar).
- Diruz lagundutako jardueran izandako sarreren eta gastuen balantzea, hasieran aurkeztutako aurrekontuari egokitu dela egiaztatze txostena. Balantze hori organo eskudunak onartuta eta erakundeko idazkariak ziurtatuta egon beharko da. Hasieran aurkeztutako aurrekontuari zein neurritan egokitu zaion balantzea egiaztatze txostena, justifikazioarekin batera hasierako aurrekontuarekiko balantzeak izandako desbideraketa taula aurkeztu beharko da, eta desbideraketarik izanez gero, horiek justifikatzeko txostena ere egin beharko da.
- Idazkariak presidentearen oniritziarekin egindako ziurtagiria diruz lagundutako jarduerarako jasotako diru laguntzei eta gainerako sarrerei buruz, horiek balantzean jasota edo jaso gabe egotea kontuan hartu gabe. (nork emandakoa eta zenbatekoa den jaso beharko da).
- Jarduerak sortutako gastuen zerrenda sailkatua honako hauekin: hartzekodunaren identifikazioa, faktura zenbakia edo frogabaliokidea duen dokumentua, zenbatekoa, fakturaren data eta ordainketa eguna.
- Jardueragatik egindako gastuen jatorrizko fakturak (ordainketa egiaztatuta) behar bezala beteta. Diruz lagundutako jarduera osoarengatik aurkeztu beharko dira fakturak nahiz eta Udalak emandako diru laguntza hasierako aurrekontua baino txikiagoa izan. Jatorrizko fakturak Arizmendi Ikastolari itzuliko zaizkio dagokion egiaztapenak egindakoan.

a) Fakturak, gutxienez, honako hauek izan beharko dituzte:

- Faktura egiten duen enpresa edo pertsona fisikoaren datu guztiak: Izena, helbidea IFK edo NAN

- Arizmendi ikastolak ordaintzeko jaulkitako fakturak izan beharko dira, eta bertan jaso beharko dira bere izena, helbidea eta IFK, kontzeptua, unitateak, koste totala unitateko, koste totala eta BEZ banakatua edo BEZ barne den, faktura zenbakia, jaulkipen data eta



ordainketa modua. BEZa salbuetsita duten operazioetan hori egiteko arauaren erreferentzia jaso beharko da.

- Gastuak justifikatzerakoan aurkeztutako dokumentazioan izandako faltsukeriagatik, zehaztasun ezagatik edo akatsetan egon daitezkeen gorabeherak zigortu egingo dira diru laguntza kitatzerakoan.
- Salbuespen gisa lege ezarritako baldintzak (BEZ, autonomoetan alta, JEZ eta abar) betetzen dituzten fakturak egiteko moduan ez dauden pertsonak emandako zerbitzuetan edo egindako lanetan, ordainketa jasotzen duenaren jasotze-agiria onartuko da fakturaren ordezkok bezala, beti ere, gutxienez ondoren esango diren datuak baldin baditu, kobratutako kopurua ez bada 125€ pertsonako baino handiagoa eta fakturatzat hartzeko eskatzen diren baldintzak betetzen ez dituzten gastu, ohar edo dokumentu guztien batuketa ez bada, jardueraren gastu guztia %25 baino handiagoa.

a) Ordainketa data, jardueraren exekuzio aldiarekin bat etorri beharko dena.

b) ordaindutako zenbatekoa.

c) Ordainketa jasotzen duenaren (izena, 2 abizen eta NAN) eta ordainketa agintzenduenaren identifikazioa.

d) Zein kontzeptutan agintzen den ordainketa.

Fakturaren edo ordainagirien data jardueraren exekuzio aldiaren barruan egon beharko da.. Exekuzio aldiaren aurreko data duten fakturak bakarrik onartuko dira programaren jarduerak garatzeko aurrez ordaindu behar izanez gero.

ZORTZIGARRENA.- JARRAIPEN BATZORDEA.

Bi aldeek beharrezkotzat jotzen dute hitzarmenaren jarraipen batzordea eratzea, alde bakoitzeko kide batek osatuko duena. Aurreikusitakoa eta hartutako konpromisoak betetzen direla zainduko du batzordeak eta orokorrean etorkizunean gertatu litezkeen auziaz arduratuko da.

Batzorde horretako kide izango dira:

- Udalaren aldetik: hezkuntza teknikaria eta arloko zinegotzia edo berak izendatutakopertsona.
- Arizmendi ikastola aldetik zuzendaria

BEDERATZIGARRENA.- HITZARMENA SUNTSITZEA.

Hitzarmen hau 2023ko azaroaren 30ean suntsituko da. Era berean, alderen batek baldintzetakoren bat betetzen ez duenean ere suntsitu egingo da, betiere, hilabete aurretik alde horri kontratua suntsituko dela era fede-emailean jakinarazi eta gero.

**HAMARGARRENA.- IZAERA.**

Hitzarmen honen aplikaziotik, interpretaziotik, aldaketatik, ondorioetatik eta ebazpenetik auziak edo eztabaidak sortuko balira, administrazioarekiko auzien jurisdikzioa arautzen duen uztailaren 13ko 29/1998 Legeak dioenaren arabera ebatziko dira.

Eta, ados daudela adierazteko, alde biek hitzarmen hau sinatzen dute ondorio bakarrerako, goiburuan adierazitako lekuan eta egunean.

EDORTA ZUBIZARRETA
ESKORIATZAKO ALKATEA

LAURANE ZUBIA
ARIZMENDI IKASTOLA